Zergadun hori:

Urtarrilaren 4ko 1/2016 Foru Aginduak zergen foru administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoz izateko obligazioa ezarri zuen hainbat pertsona eta entitateentzat.

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, azken xedapenetako bosgarrenean ezarrikoarekin bat eginez, ekainaren 28ko 320/2017 Foru Aginduak egokitu du zergen foru administrazioarekin harreman elektronikoak izatera behartuta dagoen kolektiboaren eremua lege horren 14. artikuluan jasotakora.

Horrek esan nahi du **2017ko urriaren 2tik aurrera** –orduantxe jarriko baita indarrean kolektiboa zabaltzen duen foru agindua–, **zure entitateak nahitaez baliabide elektronikoak erabili beharko dituela** Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrean edozein tramite egiteko –zerga aitorpenak edo idatziak aurkezteko, eta errekurtso edo erreklamazio ekonomiko-administratiboak tartekatzeko–, baita jakinarazpen elektronikoak jasotzeko ere.

Aurreneko kasuan, hau da, tramiteak egiteko garaian, igorpen elektronikoa kasu guztietan aplikatzen da, eta, beraz, tramitea egiteko ez badago berariazko aplikazio edo formulariorik, erregistro elektronikoan dagoen formulario generikoa erabili beharko da.

Bigarren kasuan, hau da, jakinarazpen elektronikoak jasotzeari dagokionez, jakinarazpena egiten da ondorio juridikoak dituen komunikazio administratibo bat egoitza elektronikoan eskura jarriz: Jakinarazpena egoitza elektronikoan jarri eta 10 egun naturaletan inor ez bada sartzen haren edukia ikustera, jakinarazpena egindakotzat jotzen da, eta prozedurak aurrera jarraitzen du, aldizkari ofizialean zertan argitaratu gabe.

2017ko urriaren 2tik aurrera, horixe izango da

Estimado/a contribuyente:

La Orden Foral 1/2016, de 4 de enero, estableció, para determinadas personas y entidades, la obligación de relacionarse con la administración tributaria foral por medios electrónicos.

De conformidad con lo previsto en la disposición final quinta de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, mediante la Orden Foral 320/2017, de 28 de junio, se ha adaptado el ámbito del colectivo obligado a relacionarse con la administración tributaria foral por medios electrónicos a las previsiones del artículo 14 de la citada Ley.

Esto supone que **a partir del día 2 de octubre de 2017,** fecha en que entrará en vigor la orden foral por la que se amplía el colectivo, **la entidad a la que nos dirigimos estará obligada a relacionarse por medios electrónicos** para la realización de cualquier trámite con el Departamento de Hacienda y Finanzas, incluidas la presentación de declaraciones tributarias y escritos y la interposición de recursos y reclamaciones económico-administrativas, así como a la recepción de notificaciones electrónicas.

En el primer caso, realización de trámites, el envío electrónico se aplica a todos los casos, de manera que de no existir aplicaciones o formularios específicos, deberá utilizarse el formulario genérico del registro electrónico.

En el segundo caso, recepción de notificaciones electrónicas, ésta se produce mediante la puesta a disposición de una comunicación administrativa con consecuencias jurídicas en la sede electrónica: Transcurridos 10 días naturales desde la puesta a disposición de la notificación en la sede electrónica sin que nadie haya accedido a la misma se considera realizada la notificación y se continúa con el procedimiento, sin que sea necesaria la publicación en el Boletín Oficial.

Este será el sistema obligatorio a partir de 2 de

nahitaez erabiliko den sistema, eta zure entitateak egun horretan utziko dio jakinarazpenak postaz jasotzeari.

**Sinadura elektronikoa eta ordezkaritza.**

Bai tramiteak egiteko bai jakinarazpenak ikusi eta horietan sartzeko, **beharrezkoa da norberak sinadura elektroniko bat izatea edo, bestela, sinadura elektroniko hori eskuratu duen ordezkari baimendu bidez jardutea.**

a) Entitatearen legezko ordezkaritza organoen bitartez jardutea aukeratuz gero:

- Ziurtapen-zerbitzuak ematen duen entitate batek (IZENPE, CAMERFIRMA, FNMT, …) emandako sinadura elektronikoko ziurtagiria erabil daiteke. Argibide gehiago esteka honetan:

  gipuzkoa.eus/ogasuna/sinaduraelektronikoa

- Legezko ordezkaritza Gipuzkoako Foru Aldundiaren legezko ordezkarien erroldan inskribatu beharko da 001-L eredua erabilita. Argibide gehiago esteka honetan:

  gipuzkoa.eus/ogasuna/legezkoordezkaritza

b) Zerga ordezkariaren bidez jardutea aukeratuz gero, berriz, ordezkaritza hori zerga ordezkarien erroldan inskribatu beharko da 001/001-P eredua erabilita. Ordezkariak zure jakinarazpen elektronikoetarako sarbidea izan dezan, espresuki markatu behar da jakinarazpen elektronikoaren laukia. Argibide gehiago esteka honetan:

gipuzkoa.eus/ogasuna/zergaordezkaritza

**Jakinarazpen eta posta elektronikoak.**

Jakinarazpena eskura jartzen den unean, entitateak eta, hala badagokio, haren ordezkariak, mezu bat jasoko dute posta elektronikoz, jakinarazpen elektroniko bat dutela ohartarazteko. Abisu horrek balio informatiboa baino ez du izango, eta jakinarazpena ongi eginda egongo da abisu hori bidali ez arren.

Aipatutako abisua jaso ahal izateko, **ezinbestekoa da posta elektronikoko helbide operatibo bati alta ematea** aldez aurretik. Hori egin daiteke Gipuzkoatarian sartuta eta bertan identifikatuta sinadura elektronikorekin edo pasahitz

octubre de 2017, fecha en la que la entidad dejará de recibir notificaciones por correo postal.

**Firma electrónica y representación.**

Tanto para la realización de trámites como para el acceso a las notificaciones electrónicas **es necesario contar con una firma electrónica propia, o actuar a través de una representante autorizada que disponga de dicha firma electrónica.**

a) Si opta por actuar a través de los órganos legales de representación de la entidad:

- Podrá utilizar un certificado de firma electrónica emitido por una entidad prestadora de servicios de certificación (IZENPE, CAMERFIRMA, FNMT, …) Más información en:

  gipuzkoa.eus/ogasuna/firmaelectronica

- Deberá inscribir la representación legal en el censo de representación legal de la Diputación Foral de Gipuzkoa a través del documento de representación 001-L. Más información en:

  gipuzkoa.eus/ogasuna/representacionlegal

b) Si opta por actuar a través de su representante en materia tributaria deberá inscribir dicha representación en el censo de representación tributaria a través del documento 001/001-P. Para que la persona representante pueda acceder a sus notificaciones electrónicas se deberá activar expresamente la casilla de notificación electrónica. Más información en:

gipuzkoa.eus/ogasuna/representaciontributaria

**Notificación y correo electrónicos.**

En el momento de la puesta a disposición de la notificación electrónica, la entidad y, en su caso su representante, recibirá un aviso vía correo electrónico de que dispone de una notificación electrónica con valor meramente informativo, sin que su omisión afecte a la correcta práctica de la notificación.

Para poder recibir dicho aviso **es necesario haber dado de alta una dirección de correo electrónico operativa**. Este trámite se puede hacer, previa identificación con firma electrónica o clave operativa en el portal de Gipuzkoataria, desde el siguiente

operatiboarekin, esteka honetatik.

gipuzkoa.eus/ogasuna/harremanetarakodatuak

**Gomendioak.**

Zerga administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzea nahitaezkoa izan baino lehen, hau da, **2017ko urriaren 2a iritsi aurretik, hau egitea gomendatzen dizugu**:

- **Egiaztatu baduzula sinadura elektronikoa** zure kabuz jarduteko, **edo**, bestela, **beste norbaiti ordezkaritza eman diozula** zure izenean jarduteko.
- **Egiaztatu**, eta behar izanez gero, eguneratu zure **helbide elektronikoa,** "harremanetarako datu fiskalak" ataletik. (Ikus aurreko esteka)

Zalantzaren bat baduzu, gustura egingo dizugu kasu Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan edo 902 100 040 telefonoan.

Adeitasunez,

enlace:

gipuzkoa.eus/ogasuna/datoscontactofiscales

**Recomendaciones.**

**Con anterioridad al día 2 de octubre de 2017**, en que resultará obligatorio relacionarse con esta administración tributaria por medios electrónicos, **le recomendamos**:

- **Comprobar que dispone de firma electrónica** para actuar en nombre propio, **o que ha otorgado la representación necesaria** para que actúen en su nombre.
- **Verificar**, y en su caso actualizar, **su dirección de correo electrónico** desde el apartado de "datos de contacto fiscales" (Ver enlace anterior).

Ante cualquier duda le atenderemos en las oficinas de atención ciudadana del Departamento de Hacienda y Finanzas y en el teléfono 902 100 040.

Atentamente,

Donostian, 2017ko abuztuaren 24an
En San Sebastián, a 24 de agosto de 2017

Ogasuneko zuzendari nagusia
El director general de Hacienda

Jokin Perona Lerchundi